

*Sařkaldeko jakintsubak Belen'erantz (1)*

# EUZKELDUN-NESKATIL̃AI

## EKANDUN (BIRTUTE) TXIKIJAK

Amaika ekandun dagoz, txikijak itxuraz, baña andijak arduraz beteten ba-dira.

Ekandun txiki onek bete lefekez bixitxaren aro gustijetan, egun gustijetan, ordu gustijetan eta bixibide ta lera gustijetan. Eta eurak ixaten dira emakume doniak egi.en dabezanak. Eurak-barik artega ta atsebagia ixaten dira ugari sendi-bafuban. ¡Zorigaiztoko etxia, ekandun txiki onei atia izten dautsen etxia! Gurasuak eta umiak, anayak eta aizteak, bertan bixi diran gustijak sakabanatuta bixi-ixaten dira.

Gatxa da ekandun txiki gustijak atatutia, baña gorenguenak, beste gustijen artian urtenenak, onexek dira: geidi edo *projimuaren* utsak eta txařto-egiñak parkatzeko eraztasuna, norberarenakaz gogořtxubagua ixanda be; zorigaiztodunaren atsebagia arinduten daun erukija; bestien zorijona andijagotuten daun poz begikua; *idekuen gurea, okeřa eztala*, beti egiteko gertu egotia; zoritxařa arinduteko leya, jasan edo sufrituten dabenai euren buruba apalduteko zijua emon-barik; al-daun] *on* gustija egiten daun zindotasuna, geyago ezin-egitiaz [minduten] dala; tematijai entzuteko eruapena, egiten daben gogaña edo gogo-eza erakutsi-barik; etxakiñai irakastia, euren minberatasuna ikutu-barik...

Ekandun txikijak eskatzen dauskube geure asaře ta atsebage gustijak bařuban jaboteko; egin dauskubezan ezespenak axunduteko *(disimulatzeko)*, ikusi edo aditu ezpa-gendubazan lez; auřpegi baketsuba erakusteko geure goguan ekatxak dař-dař-egiten daunian; geure itxak bare ta otzak ixan dařezala geure bijotza sutan dagonian; ixilik egoteko geure bařuban didař ta eztabaida-gogua sumetan dogunian...

Eurak agintzen dauskube eskařgabiakin be esku-zabalak ixateko; mindu dařeken itxa ezesateko; astija neuřtuteko, gauza gustijetan ziatzak ixateko. Olan, eztauz ekandun txikijak betetan jatordubak zainduten eztauzanak, urten-orduban gertuta eztagonak, beti belu eltzen danak... Uskerijak, esango edo-dozube; egija da, baña sari euretan jausizkero, gogaikařijak zatxakez bestiai.

Beraz, euzkeldun neskatil mařiok, zuzenak eta doniak ixan gura ba-dozube, ekandun txikijak betetan alegindu zateze.

ETXAKIN.

1911'gko. Urtařila-29'an Bilbao'ko *Ařiaga* deretxon antzokijan *Alma Vasca* antzeztu eben jeltzaliak lenengoz.

---

(1) Antzezki au ta uřengua lengo zenbaki'an argitaltzeko ziran, baña belu eldu ziran, ta augatik gauř ipiñteu doguz.

# NEGUA

I.

Lurak udabeřitik—zeuzkan jantziak
Margo, lili ta txoriz—bete-betiak,

Negu gogoř otzaren—asmas-lurunak
Eta ereitzen duen—eluř ligunak:

Kendu ditu ludiřik—ta il-oyala lez
Estali du gustia—lei zuri otzez.

Atsekabez beteak—gelditu ziran
*Zugatzak ořik gabe-udazkenian,..*

Eta orain dauzkate—beren gorputzak:
Solak, bizirik gabe—gogoř ta otzak.

*Polit-polita zatzait—goiz ederian*
Eguzkiyan diztirak—eluř-gañian.

¡O! zatzaidan iluna—ez entzutia
Txoriaren txoi-txoa—eta abestia...

Lili eder-ederak—ez ikustia
Ta atxon gozo-gozua—ez usaitzea!...

Negu gaizto-gogoř—ta biotz-gabia:
¿Zergatik ilda utzi dek—ludi gustia?

II.

Alaitua lenago—zan nere uria,
Gauř ilobian dauka—bere bizia.

Udaran irietan—zebil oztea...
Gauř umezuřtz dago—¡zorungabea!

Ate-onduan dago—dardař egiñaz...
Eluř zuria danka—bere jantziak.

Aitamarik ez dauka—emen ludian,
Oregatik otza du—soin, bijotzian.

¡Eskeř agitz Jaun ona!—ama kutuna
Ludian detalako...—¡au maitasuna!

III.

Beste ama bai-det nik—ama abeřia
Bañon, ¡gaixua! dago—¡gustiz eria!

Bere etxe-bařenan—dauka negua
Eta semiak kaltez...—¡ama gaxua!

Iraiten zařkit, ama—linai ta ařdatzaz
Makal-motelak daude—zure negařaz.

¡Ez negař egin nere—ama kutuna!
Jungo da, bai, etxetik—gauřko negua.

AGAIN'DARR ENEKO.

X Lon Doipurubak (Ata Santubak) Venezia'ko bitxi-saltzalie bati ero eutson perla bat, 350.000 lauřleko ordainduta.

# Erantzun ona

1.793'g. urtian, Carrier matxiñadagile ikaragařijak, France'n ainbeste odol ixuri-erazo ebanak, esan eutson baseřitař bati:

—Kanpayak eta txadonak, biřinduko yoguzak, Jaungua'ren gomutea zubei aiztu-erazoteko.

—Ixan layeřekek-erantzun eutson baseřitařak-baña ixařak itxiko dozubez, ta onek argituko yoen artian, euretan Jaungua'ren ixen deuna ikusiko yuagu ta geure semiai irakatsiko yautseguk.

R. P.